

DBH4 MATematika: "**Hazkunde handi, irabazi ttipi**"  
Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
<p>1. Zenbaki arrazionalak, irrazionalak eta errealak erlazionatu, euren arteko eragiketak (berreketa, erroketa) eta propietateak erabili informazioa biltzeko, aldatzeko eta trukatzeko, eta eguneroko bizitzako problemak eta arlo zientifikoko problemak ebazteko.</p>	<p>1.1. Zenbaki arrazionalak eta irrazionalak hautematen ditu. Zenbaki errealak identifikatzen ditu eta testuinguru desberdinetan erabiltzen ditu, kasu bakoitzean dagokion doitasuna aukeratuz eta zenbakiak zuzen errealean kokatuz.</p> <p>1.2. Kalkulagailua erabiliz edozein motatako zenbakizko adierazpenen arteko eragiketak egiteko gai da.</p> <p>1.3. Berreketen propietateak ezagutzen ditu eta adierazpen konplexuak sinplifikatzeko erabiltzen ditu.</p> <p>1.4. Idazkera zientifikoko arauak aplikatzen ditu eta kalkuluak eguneroko bizitzako problemetan zuzen burutzen ditu.</p> <p>1.5. Ohiko magnitudeetan oinarritzko unitate aldaketak burutzen ditu.</p> <p>1.6. Erroketa-berreketa eragiketak definizioaren bitartez erlazionatzen eta eraldatzen ditu.</p> <p>1.7. Erroen arteko eragiketak kalkulatzeko, erroen propietateak erabiliz: batuketa, kenketa, biderketa, zatiketa, berreketa eta erroketa.</p> <p>1.8. Erroen bidez adierazitako adierazpenak sinplifikatzeko gai da.</p>